

«AITZOL», EUSKAL KULTURAREN ERAGILLE

(1896-1936)

Gizaseme bizkor argia daukagu begien aurrean. Koldo Izagirre'k «Argia»n onela: «Aitzol dugu gerraurreko euskal pizkundearen bultzagilerik garrantzitsuenetako bat alor guztietan: kulturagintza, euskeraren normalizazioa, abertzaletasuna... Euskaltzale jator eta abertzale fin, indar berriz eragin zuen euskeraren eta Euskal Herriaren aldeko mugimendua. Tolosarra zen eta berrogei urte zituclarik Hernaniko kanposantuan afusilatu zuten Gerri Zibileko lehen urtean. Pasa den hilaren 17an 50 urte bete ziren, eta gaur egungo ikuspegitik ere hain garrantzitsu izan zan gizonari leku berezi bat eskaini nahi izan diogu» Argian.

Urte betetzatza onen inguruan beste eguneroko ta aldizkari askok ere, luze ta zabal aitatu dabez tolosar erne onen bizitza, egite ta idazlanak. Tolosan, bere jaioterriak, aste-barru osozko batzar, itzaldi ta beste, omen indartsuz ospatu nai izan dauskue aldi-gurpillak jarritako jazoera gogoangarria.

«Karmel»-ek bardin bere ondar pikortxoak ipiñi gura dau oiartzen orokor orren egoetan. Nik ezagutu neban Aitzol, baita zenbait karta alkarri egin be. Esker onez, beraz, leku askotan jardun izan naz ari buruz; baiña inun baiño geiago, «Euskal Literatura»-n (IV) 12 orrialdez gora eskiñi neutsozan, aren nortasuna ta lanak merezi eben goi-aulkian egokiturik. Eta an egin neban lez, aurrera baiño len, J. Zaitegi zanak, arek bere egunetan olerkariak batez be emon eutsen bultzadari buruz idatzia, emen ba-

rrizatuko dautzuet.

«Orain arte -diño- euskerak izan ditun olerkari garaienak eta bikaiñenak Aitzol'en baranoan loratu ziran, nonbait. Alegia, 1930 g. urtetik 1936 g. urterarte. Zazpi urteok, benetan, arrigarrak izan zenitun euskal-olerkiarrien onerako. Nik uste, zazpi urteok betirako goragarri izango dirala Eusko-Olertiaren edestian. Ori dala-ta, nolabait sailkatu ta izendatu bear-eta, aldi ori «Aitzol'en gizaldia» izendatu dezakegu. Aitzol izan bai-genuen guziok cragile ta zirikatzaile, nolarabait. Ta beraren zaiñetako odolez edertu baitzigun euskaltzaletasuna. Non-naiko elertiedestiaren olerkari ta idazleak sailka bildu oi dira» (*Euzko-Gogoia*, 1950).

Jose Ariztimuño'k, beste euskaldun argi askok lez, Komillas'en ikasi eban bere apaiz karrera; 1921'an artu zituen ordena txikiak eta 1922'an mezakotu, urte ontako uztailaren 2'an, Tolosa'n, meza barria emonik. Bertatik Gasteiz'en daukagu garrantziko karguekin: urrengo urrian eratu eben Gasteiz'en eleizbarrutiko Abaden Mixiño Bazkuna, eta or dozu Ariztimuño idazkari ordeko, gerotxoago idazkari orokor. Mixiñoetaz lan errimeca burutu eban Euskalerrian, apaizgaien arteko *El Eco Misional* eta euskerazko *Gure Mixiolaria*, gerraldiraño iraun euskuna zuzendurik. Aitzol'ek Barzelona'k Mixiño Batzar Nagusian, 1929'an ospatutakoan, ez eban lan makala egin.

Lanak, baiña, labur esateko, ziur jokatu ezik, errez auldu oi dau gure osasuna. Mixiño lanari oso-osorik emona, itzaldiak etenbarik an eta emen, 1929'an Donosti'ra joan zan osasun billa. Etzan, alan be, geldi egotekoa. Ezagutzen zituan Euskalerriak eukazan kezka, buruko miñak, gure erriak zer nai eban; ots, kultura nai eban eta kulturaz jantzi bear zan. Ortan, beraz, búlartsu jokatu eban eriotzararte, garai artan su bardiñak ixiotuta ebiltzan Lizardi, Orixe, Urreta, Artetxe, Lopez-Mendizabal ta olakoakaz alkaturik.

Idazle oneik batez be Euskaltzaleak bazkuna sortu eben, asmo ederrez beteta, Euskal Egunak sortu ta eratuz, Idazle Batza,

Olerti Egunak, Antzerki Egunak, Bertsolari Egunak, Euskal Egunkaria, «Kirikiño» saria... Eta gizaseme adoretzu bi aukeratu zituen -Aritzimuño ta Mikel Urreta- alkarte onen buru ta zuzpertzaille.

Donostia'n «El Día» ataraten asi ziranean, an genduan Aritzimuño arnas-emoille. Urte areitan aspertu barik idazten eban, beti euskal gaiez «El Día» ta «Euzkadi» egunerokoetan. Laster, 1933'an, Euskaltzaleak «Yakintza» aldizkaria ateraten asi zan, ainbat idazle ta olerkari gazte biztuazo euskuzuna; euskal literaturaren pizkunderik aintzagarricna ekarri ebana, eder eta sentikortasuncan beintzat. Itzaurrean ona: «Gaurko eusko Berpizkundearen lankide izatea: ona beraz «Yakintza»-ren elburua. Idazleak, beste alde, prest egozan euren jakituria zabaltzeko. Gai ugari ta sail edatuak eukazan aldizkaria genduan orduko gazteok. Aitzol zan zuzendari.



Literatura jantzia eban Aitzol'ek begikoen, erriarena albora itxi barik. Gogora, erri maillan, bertsolarien saio eguna Donostia'ko teatrurik zabalenean; Txirrita'k Errenderi'n eta Basarri'k Zarautz'en izan ebezan omenaldiak Aitzol'ek eratu zituan; tolosar argia izan zan beti ospakizun orreïn arnas-emoille berebiziko.

Bere aldizkari ta olerti-liburuan bitartez, euskal idazleak ugaritu ta indarazo gurarik, beste ezertan baiño lan txalogarriagoa burutu eban. Eusko-Olerti-Egunen bitartez, leendik ezagun etziran asko agertu ziran, idatzi ta idatzi trebe egin eta euskal soloan gueneraiño eldurik. Zazpi olerti-Egun ospatu ziran bere egunetan, Lekeition azkena 1936-6-28'an. An nintzen ni be, ainbat euskaltzale zintzo, euskal idazle gartsu ta ainbat euskal bultzatzaile jator ezagutzeko era ta ordu ona izanik. Leenengo

kartaz bakarrik ezagutzen neban Aitzol: nik «Yakintza»-rako bialdu oi neutsozan olerkitxoak eta arek beti eskertu oi eustazan idazki samurrez. Olerti-Egun aretan, baiña konturatu nintzan aren lanerako gogo ta balioaz. Azkue aita-semeen omenez izan zan eguna ta bera izan zan elizan, gomutarria erakusten naiz bazkal-orduan gauzeari gatza ta piperra ipiñi eutsonea.

Azkenengo Olerti-Egunekoakaz ezik, beste seiren poesi bildumak argitaratu ziran, eta danak eroien Aitzol'en itzaurrea. Mardulak eta zirikatzaileak bene-benetan. Olerkariak ziran, bere eritxiz, edozein izkuntza edertu ta bizkor-azten dabenak. Euskal poetan lana ta balioa goratuz, onela iñoan: «Ele apain, bigun, biurri, irudi errez, adiz sakona, idazle lumetarik arin, aizetsu ta leun ixurtzeko cuskerari beste biderik ez dagokio. Izkeralangille bearrenekoak, olerkariak dira. Oiek ele gogor eta gordiña, olaetan burni gorria meetzen duten eran, bizkortu eta gozotzen dute; oiek irudi biziz, asmaketa zorrotzaz, eta amets-ereduz aberastutzen dute; oiek itz joskera berri-arriagarria sumatzen dituzte. Idazleak aisago eta errezago ibilli ditozten, olerkariak, erdikaldi nekeak igarota, buru-auste gorriak ikusita, izkeraren bide zabalak idikitzen dituzte» (*Eusko Olerkiak*, 1930).

Berezkoa dozu noberak dakarrena besteai be erantsi nai izatea. Eder-zale zan Aitzol adimen argiko, asko ikasia, idazle ona cuskeraz ta erderaz. Aitaturiko itzaurretan ez-ezik, beste idatzi askotan be erakusten dausku jatortasun ori. 1921'an, Euskaltzaindiaren ipuin-sariketan saria irabazi eban «Edurnetxo» ipuiñarekin; berea dau «La muerte del euskera», baita «La lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa», «La Democracia en Euzkadi», eta abar. Txairo osoturiko lanak.

Izlari lez bardin lan ederra osotu eban. Sozial dotriñaren zabalzaile fiña izan zan Alberto Onaindia, Polikarpo Barrene, Eugenio Larrañaga ta beste batzuekaz. 1932'ko abenduan, Aitzol'ek eta Onaindia'k, iru orduko eztabaida agirian izan eben sozialista, komunista ta anarkistekin; giro gordiña, baiña azkenerrako lotsa ta begirunea sartu eben entzulego ugariaren aurrean.

Gerra sortu zan gero. Gerra latza, ainbat naigabe ekarri eus-

kuna. Baketan egoan Euskalerria, goizetik gabea naspil uts biurtua. Armaz, egazkiñez, eriotzaz gairdutu ginduezan, gu esku-utsik gengozalarik. Itsumustuan askok, erria zaindu bear zala-ta, an-or eskura eukezan iskillu ta gudu-tresnak artu ebezan; beste batzuk, muga ondokoek batez, erbestera jo eben. Aitzol Bekoke'n daukagu aurrena; baiña kezka josi, Euzkadi gorriak ikusten egoala, bere etxetik urrun? Ez, beretarrak babesteko, eurokana biurtuko zan... Bilbo'ra etorri ta, etsi-etsi, Euzko-Jaurlaritzari eskifiko eutson bere zerbitzu leiala.

Baiona'ko portura zuzendu zan. Eta 1936'ko urrillaren 15'an Bilbo'ra etorren «Galerna» ontzia artzen dau. Ontzi au, ostera, Pasai aurrean fazisten eskuetan jausten da. «Txikiago batzuen artean, arrain lodi bat jausi da, «Aitzol», idazten dau «El Diario Vasco»-k 1936-X-17'an. Danak fusilatzeke agindua dator, baiz-ta ez bete gero. Donosti'ko Espetxe probintzalean dago J. Ariztimuño. «Galerna»-n Jean Pelletier joian, eta frantsez izateak salbau eban fusilatuko ebezan taldeetik; onek gero, «Le Soir» idatzi zitun baitze orretzazko zeaztasunik naiko.

«Gabea zear -diño- arma-otsak, pausoak. Gelatik atera egiten nabe... Galernatik ateratakoak pillatzen... Itxura barik ikusten dot Ariztimuño apaiza, arpegi baltz eta puztuaz. Ez dot garbi ikusten. Zaintzaille bik eutsita dago, narras daroe gero. Onantxe fusilatu bear dabe».

Gizaseme zintzoan eriotza bai eder!

Aita Onaindia